

Koiuntura di-da batean

2018ko maiatza

Aurkibidea

1. BPGaren hazkundera
 2. Lan merkatua
 3. Inflazioa
 4. Enpresarien konfiantza
 5. Ekonomia ingurunea
 6. Aurreikuspen berriak
- Eranskina

1. EAEko ekonomia %3,1 hazi zen 2018ko lehen hiru hileroan.

Urte arteko terminoetan 20.000 lanpostu baliokide garbi baino gehiago sortu ziren.

2. Afiliatuen kopuruak erritmo bizian hazten jarraitzen du.

Emakumearen partaidetza enpleguan erabakigarria izaten ari da gehikuntza horiek lortzeko.

3. KPIa bi hamarren hazi zen aurreko hilekoaren aldean.

Igoera horren atzean elikagaiak, erregaiak eta Aste Santua daude.

4. Enpresen konfiantza maila altuan kokatu da.

Bereziki baikorra da hasi berri den hiruhilekoaz duten iritzia.

5. Europako ekonomia moteltzen hasi da?

Euroguneko PMI indize konposatua hiru puntu jaitsi da martxoan eta apirilean.

6. NDFk bilakaera ekonomiko baikorra aurreikusi du epe laburrerako.

Ekonomia aurreratuen hazkundera gorantz berrikusi da.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

OGASUN ETA EKONOMIA
SALA
Ekonomia eta Finantza Zuzendaritza


DEPARTAMENTO DE HACIENDA
Y ECONOMÍA
Dirección de Economía y Financiación

EAE-KO BPG-AREN AURRERAPENA

EAEko ekonomia %3,1 hazi zen 2018ko lehen hiruhilekoan

BPGaren bilakaera


Urte arteko aldakuntza tasa



Eustatek argitaratu duen kontu ekonomikoen aurrerapenak adierazten du EAEko ekonomia %3,1 hazi zela 2018ko lehen hiruhilekoan, hots, aurreko hiruhilekoan baino hamarren bat gehiago, azken urtebete eta erdiko baliorik altuena delarik. Beraz, bizkortzeko prozesu leunak jarraipena izan du testuinguru egonkor batean eta sendotasuneko balio batzuen barruan. Izan ere, datu hori Eusko Jaurlaritzak epealdi horretarako egin zuen aurreikuspenaren (%3,0) zertxobait gainerik kokatu da eta EAEko ekonomiak bizi duen bizitasuna baieztatzen du. Hiruhileko arteko terminoetan, lehen hiruhilekoko datua (%0,8) aurreko bi epealdietako emaitza zertxobait hobetu zuen.

BPGaren bilakaera


Hiruhileko arteko aldakuntza tasa



Iturria: Eustat.

Enpleguaren bilakaera

Urte arteko aldakuntza tasa




Eskaintzaren ikuspegitik, EAEko ekonomiaren hiru sektore nagusiek eskaintzen duten oreka egiaztatu da. BPGaren hazkundera industriaren, eraikuntzaren eta zerbitzuen portaera positiboan oinarritu da, aurreko epealdietako hazkunderak sendotuz.

Enplegua, lanaldi osoko lanpostu baliokidetan neurtuta, %2,2 hazi zen urte arteko tasan, hori ere aurreko emaitzen gainetik eta Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzaren aurreikuspenarekin bat etorritik. Tasa horrek esan nahi du azken urtebetean 20.000 lanpostu garbi baino zertxobait gehiago sortu direla. Enpleguaren hiruhileko arteko aldakuntza tasa %0,5ean kokatu zen.

Enpleguaren bilakaera

Hiruhileko arteko aldakuntza tasa




Iturria: Eustat.

GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOA


Afiliatuen kopuruak erritmo bizian hazten jarraitzen du

Gizarte Segurantzaren afiliazioa guztira
Urte arteko aldakuntza tasa




Gizarte Segurantzako afiliazioak %2,3ko hazkunde nabarmena lortu zuen martxoan eta afiliatuen kopurua 940.000ren gainetik finkatu zuen, neurri batean Aste Santuaren eraginari esker. Hori horrela izanda, hiru hileko osoaren batez besteko gehikuntza %2,2 izan zen. Balio hori aurrekoen oso antzekoa da, nahiz eta azken hamarkadako daturik onena ere baden. Zenbaki hori lortzeko bidean, gero eta garrantzitsuagoa da emakumearen papera, beraien hazkunde tasak etengabe gizon afiliatuenak baino altuagoak izan direlako, dagoneko afiliatu guztien %47 izatera iritsita. Zehazkiago adierazita, emakumeen afiliazioa %2,5 handitu zen hiru hilekoan eta gizonena, berriz, %2,0.


Gizarte Segurantzaren afiliatutako emakumeak
Urte arteko aldakuntza tasa




Gizarte Segurantzaren afiliatutako gizonak
Urte arteko aldakuntza tasa



Afiliazioa industrian
Urte arteko aldakuntza tasa



Afiliazioa zerbitzuetan
Urte arteko aldakuntza tasa



Afiliazioaren gorakadan sektore guztiek parte hartu zuten, hala industriak (%1,9 hazi zen lehen hiruhilekoan) nola eraikuntzak (%2,7) eta zerbitzuek (%2,4). Jarduera adarraren arabera, ostalaritzak gehikuntza tasa nabarmenak (%2,7) lortu zituen, baina oraindik urrun dago hezkuntzaren tasatik (%6,3), hazkunde handiena eskuratu baitzuen berriro. Gorakada esanguratsuak aisialdiko jarduerak (%4,0) eta osasunak (%3,4) ere izan zituzten. Berrito ere, finantza eta aseguruak jardueretan bizi den jaitsiera (%-2,0) adierazi behar da. Azkenik, enplegua erregimen orokorrean sortzen ari da, norberaren kontura lan egiten dutenen kopurua berrito murriztu zen bitartean (%-0,3), aurreko epealdietan bezala.

Gizarte Segurantzaren afiliatuta dauden lagunak


	2017ko martxoa	2018ko martxoa	Aldakuntza
AFILIAZIOA GUZTIRA	922.032	943.510	21.478
Industria manufakturagileak	171.299	174.641	3.342
Merkataritza	136.271	137.275	1.004
Osasun arloko jarduerak	88.461	91.808	3.347
Hezkuntza	67.890	72.150	4.260
Ostalaritza	63.067	64.637	1.570
Administrazio jarduerak	62.870	64.867	1.997
Lanbide jarduerak	53.632	55.178	1.546
Eraikuntza	52.892	54.309	1.417
Administrazio publikoa	46.985	47.544	559
Garraioa	39.382	40.835	1.453
Etxeko langileak	31.208	30.920	-288
Bestelako zerbitzuak	28.698	28.699	1
Informazioa eta komunikazioa	21.342	21.966	624
Finantza jarduerak	18.435	18.090	-345
Jarduera artistikoak	15.380	15.985	605
Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza	12.491	12.332	-159
Ur horniketa	5.589	5.865	276
Higiezin jarduerak	3.777	3.924	147
Energia horniketa	1.755	1.847	92
Erauzketa industriak	566	583	17
Lurralde kanpoko erakundeak	41	52	11

INFLAZIOA

KPIa bi hamarren hazi zen aurreko hilekoaren aldean

KPI indize orokorra

Urte arteko aldakuntza tasa



Kontsumoko prezioek %1,2ra igo zuten beren urte arteko aldakuntza tasa martxoan, iazko azarotik izan duen baliorik altuena jasoz. Prezioen igoera horren azpian hainbat elikagairen garestitzea dago, hala nola lekariena eta ortuariena, baina baita erregaien merkatze txikiagoa eta Aste Santuari lotuta dauden pakete turistikoaren eta alojamenduko zerbitzuen garestitzea ere.

KPIaren banaketa

Urte arteko aldakuntza tasak eta ekarpenak

	2016	2017	2018ko martxoa	Ekarpena
Inflazio osoa (%100)	0,0	2,0	1,2	1,2
Azpiko inflazioa (%81,8)	0,9	1,1	1,0	0,8
- Elikagai landuak (%14,1)	0,9	0,0	1,3	0,2
- Industria ondasunak (%24,5)	0,8	0,3	-0,4	-0,1
- Zerbitzuak (%43,2)	1,1	1,7	1,7	0,7
Hondar inflazioa (%18,2)	-4,2	6,5	1,6	0,4
- Landu gabeko janariak (%7,6)	2,6	3,7	2,1	0,2
- Energia (%10,6)	-8,2	8,2	1,3	0,2


Azpiko inflazioa

Urte arteko aldakuntza tasak



Hondar inflazioa

Urte arteko aldakuntza tasak



Petrolio upelaren prezioa

Dolarrak



Aipatu berri den prezioen igoeraren atzean dauden erantzule nagusietako bat erregaiak dira. Erregai gordinaren prezioa azken hiru urteko mailarik gorenera iritsi izanak eragina izan zuen osagai horretan. Garestitzea Errusiaren eta AEBen arteko tentsioak eta Asiako eskariaren gehikuntzak ekarri dute. Arrazoi horien ondorioz, upelaren salneurria 72 dolarren gaineratik kokatu zen apirilaren erdialdean. Horregatik, garraioen taldeak izan zuen bizkortzerik handienetarikoa, hiru hamarren hazita. Lehen tokian, elikagaiak eta alkoholik gabeko edariak izan ziren, aldakuntza tasa %0,9tik %1,6ra igarota. Aste Santuarekin lotura daukateneke ere beren tasa igo zuten, hala nola hotelak, kafetegiak eta jatetxeak biltzen dituenen, lau hamarreneko igoera bat jaso baitzuen. Beste muturrean, etxebizitza nabarmendu behar da, beraren tasa lau hamarren murriztu baitzen, 2017ko igoeraren ondoren argindarra merkatu zelako.


KPIaren talde nagusiak Urte arteko aldakuntza tasak. 2018ko martxo

	Euskadi	Espania	Euro gunea
INDIZE OROKORRA	1,2	1,2	1,3
Janariak eta alkoholik gabeko edariak	1,6	1,4	1,5
Edari alkoholodunak eta tabakoa	1,8	1,7	4,4
Jantziak eta oinetakoak	0,9	0,7	-0,5
Etxebizitza, ura, argindarra eta beste erregaiak	0,9	1,0	1,6
Altzariak, etxeko tresneria eta mantentzea	-0,1	0,0	0,3
Medikuntza	0,1	0,2	0,8
Garraioa	1,4	1,4	1,7
Komunikazioak	2,2	2,1	-0,9
Aisia eta kultura	0,4	1,0	1,1
Hezkuntza	1,0	0,7	-2,0
Jatetxeak eta hotelak	2,1	2,2	2,3
Bestelako ondasunak eta zerbitzuak	0,1	0,7	1,3

ENPRESARIEN KONFIANTZA


Enpresen konfiantza maila altuan kokatu da

Enpresarien konfiantza indize harmonizatua. Euskadi




2018ko bigarren hiruhilekoan, enpresarien konfiantza indize harmonizatuak baikortasuneko ibilbideari jarraipena eman dio eta 136,3ko balioa jaso du, serie historiko osoaren maximoa baita. Adierazlearen bi osagaietatik, hasi berri den hiruhilekoari buruzko igurikimenak dira emaitza onena eskaini dutenak, 14,6 puntuko saldo positiboa izan duelako, aurreko hiruhilekoetako balioak nabarmen gaindituz. Hasi berri den hiruhilekoaz aldeko iritzia duten %25,0aren eta iritzi ezkorak dituzten %10,4aren arteko aldea da saldo hori. Beste aldetik, aurreko hiruhilekoaren egoeraz eman duten iritzia aurreko epealdietan eskainitakoa baino zertxobait okerragoa izan da, nahiz eta oraindik saldo positiboa (4,5) eduki, aldeko erantzuna eman duen %21,9aren eta aurkako iritzia eman duen %17,4aren artean lortuta.

Amaitu berri den hiruhilekoaz duten iritzia




Hasiko den hiruhilekoaz duten iritzia



EKONOMIA INGURUNEA


Europako ekonomia moteltzen hasi da?

PMI indize konposatua. Eurogunea




Markit institutuak osatzen duen PMI indizea ekonomiak eramaten duen bilakaeraren adierazle ontzat jotzen da. Hasieran, PMIa manufakturen alorrera mugatzen bazen ere, azken urteetan zerbitzuetarako antzeko beste batekin osatu da eta bi adierazleak konbinatuz, ekonomia osorako indize konposatua egiten da. Hori horrela izanda, 2018ko martxoan eta apirilean, Euroguneko adierazle konposatua hiru puntu baino gehiago jaitsi da, 55,2 mailara arte. Hala eta guztiz ere, oraindik hazkundea eta atzeraldia bereizten dituen 50eko balioaren oso gainetik dago kokatuta. Bizitasunaren galera begi bistakoa da bai manufakturretan (56,0) bai zerbitzuetan (55,0), nahiz eta mugimenduak, hala goranzkoak nola beheranzkoak, apalagoak izaten diren zerbitzuetan manufakturretan baino.


Manufakturen indizea. Eurogunea




Zerbitzuen indizea. Eurogunea




Indize konposatua. Alemania.



Indize konposatua. Frantzia.




Indize konposatua. Erresuma Batua.




Zertxobait beherantz doan bilakaera hori Europar Batasuneko bost herrialde nagusietan agertzen da, oraindik hedatzeko une garbian dauden arren. Okerragotze esanguratsuena Italian gertatu da, urtarrileko 59,0tik martxoko 53,5era igaro baita. Erresuma Batuari dagokionez, jaitsi-era ez da hain bortitza izan, baina luzeagoa izan da denboran. Izan ere, herrialde hartako indizea 2017ko urriko 55,8tik aurtengo martxoko 52,5era gutxitu da. Alemanian eta Frantzian beherakada bortitza izan dute urtarriletik, baina apirileko behin-behineko datuak galga iragartzen du. Azkenik, Espainian egonkortasun handiagoa hautematen da, aldakuntzak txikiak direlarik.

Indize konposatua. Italia.



Indize konposatua. Espainia.




NDF-REN AURREIKUSPENAK

NDFk bilakaera ekonomiko baikorra aurreikusi du epe laburrerako

Munduko BPGa

Urte arteko aldakuntza tasa




NDFk apirileko txostenean zenbatetsi duenaren arabera, munduko BPGaren hazkundera %3,9an kokatuko da bai 2018an bai 2019an. Aurreikuspen hauek bat datoz aurreko txostenean aurkeztu zituenekin. Oraingo aurreikuspenek adierazten dute ekonomia aurreratuek hazkunde potentzialaren gaintik kokatuko dutela gehikuntza tasa 2018an eta zertxobait motelduko dela 2019an. Beste aldetik, azaleratzen ari diren eta garatzen ari diren ekonomiek hazkundera finkatuko dute bi urte horietan, gehikuntza tasa esanguratsuak lortuz.

NDFren aurreikuspen ekonomikoak


	Oraingoak			Aurreko txostenarekiko aldeak	
	2017	2018	2019	2018	2019
Munduko ekonomia	3,8	3,9	3,9	0,0	0,0
Ekonomia aurreratuenak	2,3	2,5	2,2	0,2	0,0
AEB	2,3	2,9	2,7	0,2	0,2
Eurogunea	2,3	2,4	2,0	0,2	0,0
Alemania	2,5	2,5	2,0	0,2	0,0
Frantzia	1,8	2,1	2,0	0,2	0,1
Italia	1,5	1,5	1,1	0,1	0,0
Espainia	3,1	2,8	2,2	0,4	0,1
Erresuma Batua	1,8	1,6	1,5	0,1	0,0
Japonia	1,7	1,2	0,9	0,0	0,0
Garatzen ari diren herrialdeak	4,8	4,9	5,1	0,0	0,1
Txina	6,9	6,6	6,4	0,0	0,0
India	6,7	7,4	7,8	0,0	0,0
Errusia	1,5	1,7	1,5	0,0	0,0
Brasil	1,0	2,3	2,5	0,4	0,4

Iturria: Nazioarteko Diru Funtza.


Ekonomia aurreratuen BPGa
Urte arteko aldakuntza tasa




Garapen bidean dauden ekonomien BPGa
Urte arteko aldakuntza tasa



AEBetako BPGa
Urte arteko aldakuntza tasa




Erresuma Batuko BPGa
Urte arteko aldakuntza tasa



Ekonomia aurreratuen 2018ko hazkundera gorantz zuzendu da oraingo aurreikuspenean. Moneta politika egokitzailak Euroguneko ekonomiari mesedea egingo dio. Orobat, ekonomia estatubatuarra zerga politika hedakorrean oinarrituko da. Azaleratzen eta garatzen ari diren ekonomien artean, azpimarratzekoak dira Asiako eta Europako eskualdeen hazkunde bizia eta lehengaiak esportatzen dituzten herrialdeek izango duten suspertze arina.

NDFk aurkeztu duen eszenategi makroekonomikoan, epe laburreko arriskuak orekatuta daude. Hala ere, epe ertainera arrisku horiek beheranzkoak dira. Beraien artean, seinlatu behar dira finantzaziorako baldintzen balizko okerragotze bat, merkataritzako tentsio handiagoak eta politika protekzionistak ezartzeko asmoak.

Espainiako BPGa
Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: NDF.

EAE-KO EKONOMIA

Taula makroekonomikoa

Urte arteko aldakuntza tasak

	2016	2017	2017				2018
			I	II	III	IV	
BPG	3,1	2,9	2,8	2,9	3,0	3,0	3,1
Familien kontsumoa	3,1	3,0	3,0	3,0	3,0	2,8	—
Administrazioaren kontsumoa	2,3	2,4	2,6	1,2	2,7	2,9	—
Kapital eraketa gordina	3,1	3,5	3,0	3,2	3,9	3,8	—
Barne eskaria	3,0	3,0	2,9	2,7	3,1	3,1	—
Esportazioak	1,7	3,0	1,5	1,9	3,7	4,8	—
Inportazioak	1,5	3,1	1,9	1,8	3,9	4,8	—
Lehen arloa	2,0	-3,0	4,2	-1,9	-1,9	-11,9	—
Industria	2,9	2,7	2,0	2,3	2,7	3,7	—
Eraikuntza	1,8	2,5	2,1	1,9	3,0	3,1	—
Zerbitzuak	2,8	3,1	3,0	3,2	3,1	2,9	—
Balio erantsi gordina	2,7	2,9	2,7	2,9	3,0	3,0	—
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	6,8	3,0	3,3	2,4	3,0	3,2	—

Iturria: Eustat.

Aurreikuspenak. 2018ko martxoa

Urte arteko aldakuntza tasak

	2018				2018	2019
	I	II	III	IV		
BPG	3,0	2,7	2,5	2,4	2,6	2,2
Barneko azken kontsumoa	2,7	2,5	2,2	2,2	2,4	1,9
Familien kontsumoa	2,8	2,6	2,3	2,3	2,5	2,0
Administrazioaren kontsumoa	2,0	1,8	1,6	1,8	1,8	1,6
Kapital eraketa gordina	3,5	3,3	3,5	3,2	3,4	2,8
Barne eskariaren ekarpena	3,0	2,8	2,6	2,6	2,7	2,3
Kanpo eskariaren ekarpena	0,0	-0,1	-0,1	-0,2	-0,1	-0,1
Lehen arloa	-2,5	-5,7	-9,9	-9,4	-6,9	-5,9
Industria	3,4	3,1	2,8	2,5	2,9	2,2
Eraikuntza	2,7	2,4	2,1	1,9	2,3	1,7
Zerbitzuak	3,0	2,8	2,7	2,7	2,8	2,3
Balio erantsi gordina	3,1	2,7	2,6	2,5	2,7	2,2
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	3,0	2,5	2,3	2,2	2,5	2,0
Enplegua	2,2	2,0	1,8	1,6	1,9	1,4

Iturria: Ogasun eta Ekonomia Saila: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

EAEko ekonomiarako aurreikuspenak

Urte arteko aldakuntza tasak

	BPG			BPG	
	2018	2019		2018	2019
BBVA	3,1	2,8	Laboral kutxa	2,7	—
Confebask	2,9	—	CEPREDE	2,4	2,1
Funcas	2,7	—	Hispalink (BEGren aldakuntza)	2,2	2,3

Iturria: CEPREDE (2018ko martxoa), BBVA (2018ko apirila), Confebask (2017ko abendua), Laboral Kutxa (2017ko abendua), Funcas (2017ko azaroa) eta Hispalink (2017ko abendua).

ESPAINIAKO EKONOMIA

Taula makroekonomikoa

Urte arteko aldakuntza tasak

	2016	2017	2017				2018
			I	II	III	IV	I
BPG	3,3	3,1	3,0	3,1	3,1	3,1	2,9
Kontsumo pribatua	2,9	2,4	2,2	2,4	2,4	2,5	—
Kontsumo publikoa	0,8	1,6	1,0	1,5	1,4	2,4	—
Kapital finkoaren eraketa gordina	3,3	5,0	4,9	3,9	5,6	5,6	—
- Aktibo finko materialak	3,4	5,2	5,2	4,1	5,7	6,0	—
- Eraikuntzan	2,4	4,6	4,5	4,3	5,1	4,8	—
- Ekipamendu ondasunetan	4,9	6,1	6,1	3,9	6,6	7,7	—
- Jabetza intelektualaren produktuak	2,7	3,7	3,5	2,9	5,0	3,3	—
Nazio eskaria (ekarpena)	2,5	2,8	2,5	2,5	3,0	3,2	—
Esportazioak	4,8	5,0	5,6	4,5	5,6	4,4	—
Inportazioak	2,7	4,7	4,5	3,1	5,9	5,2	—

Iturria: INE.

Espainiako ekonomiarako hainbat aurreikuspen

Urte arteko aldakuntza tasak

	BPG			BPG	
	2018	2019		2018	2019
AFI	2,8	2,3	Intermoney	2,8	2,4
Axesor	2,8	2,4	Repsol	2,6	2,4
BBVA	2,5	2,3	Santander	2,7	2,3
Bankia	2,9	2,3	Solchaga Recio & asociados	2,9	2,4
CaixaBank	2,8	2,4	BATEZ BESTE	2,7	2,4
Cemex	2,7	2,3	Gobernua (2017-10)	2,3	—
CEEM-URJC	2,5	2,2	Espainiako Bankua (2018-03)	2,7	2,3
CEPREDE-UAM	2,6	2,3	Europar Batzordea (2018-02)	2,6	2,1
CEOE	2,8	2,6	NDF (2018-01)	2,4	2,1
FUNCAS	2,8	2,4	ELGE (2017-11)	2,3	2,1
ICAE-UCM	2,7	2,7	The Economist (2018-04)	2,8	2,3
IEE	2,8	2,3	Consensus Forecast (2018-04)	2,7	2,3

Iturria: FUNCAS, Ekonomia eta Ogasun Ministerioa, CEPREDE, ELGE, NDF, Europar Batzordea, The Economist eta Consensus Forecast. AFI: Analistas Financieros Internacionales; ICAE-UCM: Instituto Complutense de Análisis Económicos-Madrileko Unibertsitate Konplutentse; ICO: Instituto de Crédito Oficial; IEE: Instituto de Estudios Económicos; IFL-UC3M: Flores de Lemus Institutua-Carlos III Unibertsitatea Madril; NDF: Nazioarteko Diru Funtza; ELGE: Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundea.

NAZIOARTEKO EKONOMIA

Ekonomia hazkundera

Urte arteko aldakuntza tasak

	2016	2017	2017				2018
			I	II	III	IV	I
AEB	1,5	2,3	2,0	2,2	2,3	2,6	2,9
Txina	6,7	6,9	6,9	6,9	6,8	6,8	6,8
Japonia	0,9	1,7	1,3	1,6	1,9	2,1	—
Kanada	1,4	2,0	2,3	3,7	3,0	2,9	—
Europar Batasuna	2,0	2,4	2,2	2,5	2,7	2,7	2,4
Eurogunea	1,8	2,3	2,1	2,4	2,7	2,8	2,5
Alemania	1,9	2,2	2,1	2,3	2,7	2,9	—
Frantzia	1,2	1,8	1,2	2,0	2,3	2,6	2,1
Erresuma Batua	1,9	1,7	2,1	1,9	1,8	1,4	1,2
Italia	0,9	1,5	1,3	1,6	1,8	1,6	—
Herbehereak	2,2	3,1	2,7	3,8	3,3	3,4	—

Iturria: Eurostat, BEA eta ELGE.

Consensus Forecast. 2018ko apirila

Urte arteko aldakuntza tasa

	BPG		KPI		LANGABEZIA TASA	
	2018	2019	2018	2019	2018	2019
AEB	2,8	2,6	2,5	2,1	3,9	3,6
Japonia	1,4	1,1	1,0	1,0	2,6	2,5
Kanada	2,0	1,9	2,2	2,0	5,9	5,8
Europar Batasuna	2,2	1,9	1,7	1,8	—	—
Eurogunea	2,4	1,9	1,5	1,5	8,3	7,9
Alemania	2,4	1,9	1,7	1,8	5,3	5,1
Frantzia	2,1	1,8	1,5	1,5	8,7	8,3
Erresuma Batua	1,5	1,5	2,6	2,2	4,4	4,5
Italia	1,4	1,2	1,2	1,3	10,8	10,3
Espainia	2,7	2,3	1,4	1,5	—	—
Herbehereak	2,8	2,3	1,6	1,9	—	—

Iturria: Consensus Forecast.